



**2021-2022 URTEETARAKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN
JARDUERARAKO BEHARREZKOA DEN AHOHKULARITZA ETA ORDEZKARITZA
JURIDIKOA ETA SEGURTASUNAREN ETA DATU PERTSONALEN BABESAREN
ARLOKO AHOHKULARITZA KONTRATATZEKO PROPOSAMENA**

Batetik, 1/1993 Legeak, otsailaren 9koak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, bere 9. artikuluko bigarren atalean zehazten du Hezkuntza Administrazioak, Administrazio eta egitate sozial desberdinekin lankidetzan, zero urtetik aurrerako eskolatzearen ezarpen mailakaturik burutuko duela.

Bestetik, zehazten da, 0 eta 3 urteko haurrentzako haurreskolen kudeaketa 297/2002 Dekretuaren, abenduaren 17koa, eta 2003ko irailaren 24an Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko 31 udalerrien artean sinatutako Hitzarmenaren arabera sortu den HAURRESKOLAK Partzuergoak gauzatuko duela.

Aipatutako jarduerak gauzatzen den bitartean, Haurreskolak Partzuergoko eguneroko jardueran arlo juridikoan sor daitezkeen zalantzei erantzuteko, beharrezko txosten eta dokumentu juridikoak landu edo berrikusteko, zuzenbide publiko edo administratibo arloetan aholkatzeko edota gerta daitezkeen auzietan defendatzeko, beharrezko da aholkularitza juridikoa emango duen enpresa bat kontratatzea.

Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren helburuak bete nahi dira. Erregelamendu hori pertsona fisikoaren babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez. Horretarako, datuen babesaren eta segurtasunaren arloan aholkularitza teknikoak eta kudeaketakoa, jarraitua, integrala eta praktikoa emango duen enpresa bat kontratatzea.

Urte honetan sinatuko da aholkularitza juridikoari eta segurtasunaren eta datu pertsonalen babesaren arloko aholkularitzari buruzko kontratua lehiaketa publiko bidez. Lehiaketa honen iragarkia Kontratatzaile Profilean argitaratuko da Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak akordioa onartu ostean.

Lizitazioa prozedura izapide arruntaren eta prozedura irakiaren bidez gauzatuko da.

Laburbilduz, eta orain artean aipatutako guztia oinarritzat hartuta, idatzi honen bidez Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari aholkularitza juridikoa eta segurtasun eta datu pertsonalen babesaren arloko aholkularitza prozedura irekiaren bidez kontratatzeko 47.900 euroko urteko gastu baimena (BEZ gabe) onartu dezan eskatzen zaio.

Era berean, aholkularitza juridikoa kontratatzeko lizitazio publikorako ondorengo kontratazio mahaia onartzea eskatzen zaio:

- Lehendakaria: Idoia Nogales Alberdi
- Idazkaria: Zorione Etxezarraga Ortuondo
- Bokal juridikoa: Begoña Barranco Lopez
- Bokal ekonomikoa: Irantzu Benitez Galarza
- Bokal 3: Alicia Andrés Luis
- Bokal 4: M. Carmen Martin Fernandez



Ordezkoak:

- Lehendakariarena: Irantzu Benitez Galarza edo Mireia Ibarra Fernandez
- Idazkariarena: Idoia Nogales Alberdi edo Alicia Andrés Luis
- Bokalena: Mireia Ibarra Fernandez edo Iratxe Badiola Lopez

Eibar, 2020ko ekainaren 22a